

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORMAIZTEGIKO UDALA

Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko Ordenantzaren behin betiko onarpena.

Ormaiztegi Udalak, 2015eko azaroaren 16an egindako ohiko bilkuran, Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko Ordenantzaren hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Ordenantza hau behin betiko izaeraz onartua geratu da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Errejimeneko Oinarriak arautzen dituena, 70.2 artikulua xedatzen duena betez, aipaturiko Ordenantza hau argitaratzen da.

Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko Ordenantza.

1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da Ormaiztegi bizilagunei diru-laguntzak ematea honako ikastaroetarako: euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, udakoak tartean; euskaltegi publiko zein euskaltegi pribatu homologatuetako barnetegiak.

2. artikulua. Informazio printzipioak.

1. Ordenantza honen ondorioetarako, diru-laguntzat hartuko da pertsona fisikoen aldeko diru erabilera oro, trukean onuradunen inolako ordain zuzenik izan barik.

2. Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterako izango dira.

3. Ormaiztegi Udaletik aurretik lortutako laguntzek ez dute eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik sortzen, eta horrelako aurrekariak ez dira kontuan izango beste diru-laguntza bat emateko irizpide erabakigarritzat.

3. artikulua. Onuradunak.

Euskara ikasi nahi duen edozein bizilagun izango da onuradun, beti ere ondorengo betekizunak betetzen baditu:

- Udalean erroldatuta izatea.
- Udalaren zerga betekizunetan eguneratuta izatea.
- Bateriaezintasun edota debeku egoeratan ez izatea.

Ez zaie diru-laguntzarik emango IRALERen zein HAEERen berariazko ikastaroak egiten dituztenei. Era berean, beren enpresa, erakunde eta abarren eskutik %100eko diru-laguntza jasotzen dutenak ere ez dira kontuan hartuko.

Onuradunen artean, laguntzaren kopurua zehazteko irizpideak honako hauek dira:

%100eko laguntza lor dezakete:

- a) Langabetu eta ikasleak.

AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para estudiar euskera.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 16 de noviembre de 2015, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para estudiar euskera.

Teniendo en cuenta que en el periodo de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones, la Ordenanza ha quedado aprobada definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza.

Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones para estudiar euskera.

Artículo 1. Objeto de la subvención.

El objeto de esta Ordenanza es conceder subvenciones a los y las habitantes de Ormaiztegi para la realización de cursos de alfabetización y aprendizaje de euskera durante el periodo estival, así como para la participación en internados de euskaltegis homologados, tanto públicos como privados.

Artículo 2. Principios informativos.

1. A efectos de esta Ordenanza, se considerará como subvención todo empleo de dinero a favor de las personas físicas en el que no exista ningún reintegro directo por parte de las personas beneficiarias.

2. Las subvenciones son de carácter voluntario y temporal.

3. Las ayudas recibidas anteriormente por parte del Ayuntamiento de Ormaiztegi no implican ningún derecho posterior a favor de las personas solicitantes, por lo que dichos antecedentes no se tomarán en consideración como criterio decisivo a la hora de conceder otra subvención.

Artículo 3. Personas beneficiarias.

Será beneficiario cualquier habitante que desee estudiar euskera, siempre y cuando cumpla los siguientes requisitos:

- Estar empadronado o empadronada en el ayuntamiento.
- Estar al corriente en las obligaciones fiscales del ayuntamiento.
- No encontrarse en situación de incompatibilidad o prohibición.

No se concederán subvenciones a aquellas personas que ya participen en cursos específicos de IRALE o IVAP. Asimismo, no se tendrán en consideración aquellas personas que reciban el 100% de la ayuda por parte de su empresa u otras instituciones o entidades.

Los criterios para determinar la cuantía de la ayuda para cada persona beneficiaria son los siguientes:

Podrán recibir el 100% de la ayuda:

- a) Personas desempleadas y estudiantes.

b) Herriko dendetako langileak, 0-12 urte bitarteko seme-alaben gurasoak, etorkinak.

%75eko laguntza lor dezakete:

a) Gainontzeko herritarrek.

4. artikulua. Aurrekontuko diru-hornidura.

Diru-laguntza hauek emateko erabiliko den diru-kopurua dagokien deialdian aipatu eta ekitaldi bakoitzeko udal aurrekontuetan xede horretarako jasotakoa izango da. Beraz, kopuru hori guztira eman beharrekoa baino txikiagoa bada hainbanaketa egingo da 6. artikuluan zehaztutako irizpideei jarraituz.

5. artikulua. Diru-laguntza emateko prozedura.

Urtero, uztaileko lehen hamabostaldian bandoa kaleratuko da, esango duena euskara ikastaroak egitearren diru-laguntzak emateko Ordenantzak daudela eta kurso berrirako matrikula egiteko epeak, baldintzak eta diru-laguntzen berri emango duena.

- Eskaerak aurkeztea.

Eskaera Ormaiztegiko Udaletxeko sarrera-erregistroan egin beharko da dagokion formatuan, erabakitako epean, normalean abuztuaren 15a baino lehen. Ikastaro trinkoen kasuan eskaerak abenduaren 31a baino lehen egin beharko dira.

Eskaera egiteko momentuan aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Ormaiztegin osatutako taldetan kide izan nahi dutenek:

Ikastaroetan parte hartzeko:

– Eskaera orria behar bezala beteta.

– Diru-laguntza eskatzen duenaren NANaren fotokopia.

– Langabe edota gazteen kasuan, langabetu txartela edo gazte txartela.

Ikasturtean zehar:

– Fiantzaren ordainketa (ikastaro osoaren kostuaren %20a) agiria urria amaitu baino lehen.

– Euskaltegiari egindako ordainketaren ziurtagiria, Udalak ordainketa egin duen egunetik 15 eguneko epeaz.

Ikasturte amaieran:

– Euskaltegiaren ziurtagiria. Honek alderdi hauek jaso beharko ditu:

Egiaz hartutako eskola-orduak ordu guztietatik %85 edo gehiago izan direla.

Aprobetxamenduaren emaitzak.

b) Ikastaro trinkoak egin nahi dituztenak:

Diru-laguntza eskatzeko momentuan:

– Dagokion eskaera ikastaroen datak, ordu kopurua eta aurrekontua zehaztuta.

Ikasturte amaieran:

– Matrikula ordaindu izanaren frogagiriaren fotokopia. Barnetegen kasuan, bakar-bakarrik matrikulari dagokion kostuaren banakatzera erantsi beharko da; izan ere matrikula hartuko da kontuan (klase eta ikasketa orduak), ez egonaldia.

– Euskaltegiaren ziurtagiria. Honek alderdi hauek jaso beharko ditu:

* Egiaz hartutako eskola-orduak ordu guztietatik %85 edo gehiago izan direla.

* Aprobetxamenduaren emaitzak.

b) Empleados y empleadas de las tiendas locales, padres y madres de niños y niñas de entre 0 y 12 años, inmigrantes.

Podrán recibir una ayuda del 75%:

a) El resto de habitantes.

Artículo 4. Provisión económica presupuestaria.

La cantidad de dinero empleada para la concesión de estas subvenciones será la mencionada en la correspondiente convocatoria y la recogida para dicho objeto en los presupuestos municipales de cada ejercicio. Por lo tanto, en caso de que la cantidad sea inferior a la del total de la concesión, se procederá a su prorrateo, de conformidad con los criterios establecidos en el artículo 6.

Artículo 5. Procedimiento de concesión de la subvención.

Cada año, en la primera quincena de julio, se publicará el bando, donde se comunicará la existencia de Ordenanzas para la concesión de subvenciones para la realización de cursos de euskera, y se anunciarán los plazos de la matrícula, los requisitos y las subvenciones para el nuevo curso.

- Presentación de solicitudes.

La solicitud debe presentarse en el registro de entrada del Ayuntamiento de Ormaiztegui, en el formato correspondiente y dentro de la fecha establecida, que por lo general será antes del 15 de agosto. En el caso de cursos intensivos, las solicitudes deberán presentarse antes del 31 de diciembre.

Esta es la documentación que debe presentarse junto con la solicitud:

a) Las personas que quieran participar en los grupos formados en Ormaiztegui:

Para participar en los cursos:

– Hoja de solicitud debidamente cumplimentada.

– Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

– En el caso de personas desempleadas y jóvenes, tarjeta de desempleo o tarjeta joven.

A lo largo del curso:

– Justificante de pago de la fianza (20% del coste total del curso) antes del fin del mes de octubre.

– Justificante del pago realizado al euskaltegi, en un plazo de 15 días a partir del día en el que el Ayuntamiento haya realizado el pago.

Al final del curso:

– Certificado del euskaltegi, donde se especificarán los siguientes aspectos:

La confirmación de que las horas lectivas realmente recibidas han sido el 85% o más del total de las horas del curso.

Resultados del aprovechamiento.

b) Las personas que deseen realizar cursos intensivos:

A la hora de solicitar subvenciones:

– Fechas, número de horas y presupuesto del curso solicitado.

Al final del curso:

– Fotocopia del justificante de pago de la matrícula. En el caso de los internados, se adjuntará solamente el desglose del coste correspondiente a la matrícula, ya que será ésta la que se tenga en cuenta (horas de clase y de estudio) y no la estancia.

– Certificado del euskaltegi, donde se especificarán los siguientes aspectos:

* La confirmación de que las horas lectivas realmente recibidas han sido el 85% o más del total de las horas del curso.

* Resultados del aprovechamiento.

- Jardunbidea bideratzea.

Hezkuntza eta Euskara Batzordea izango da jardunbidea bideratuko duen organoa. Bideratze lan honek ondoko pausoak izango ditu:

– Herrian bertan egiteko ikastaroen kasuan:

- * Eskaerak jaso, Ordenantza honetan definitzen den irizpide eta moduan.

- * Diru-laguntza jasotzeko proposatzen den eskatzaileen zerrenda osatu.

- * Datuak ikastaroak emango dituen euskaltegiari igorri, taldekatzea egin ahal izateko.

- * Taldekatzea egin ondoren, eskatzaile guztiak bildu, modulua, egutegia eta ordutegiak adostu ahal izateko.

- * Diru-laguntzaren zenbateko zehatza finkatu eta eskatzaileei komunikatu.

- * Ordenantzak finkatzen duen fiantza ordaintzeko prozedurak martxan jarri.

– Herritik kanpo ikastaro trinkoak egingo dituztenen kasuan:

- * Eskaerak jaso, Ordenantza honetan definitzen den irizpide eta moduan.

- * Diru-laguntza jasotzeko proposatzen den eskatzaileen zerrenda osatu.

- * Diru-laguntzaren zenbateko zehatza finkatu eta eskatzaileei komunikatu.

Diru-laguntza emateari buruzko erabakiak amaiera emango dio administrazio bideari.

Erabakiak ohiko iragarki tauletan edo/eta Udaleko web orrian emango da argitara.

6. artikulua. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

Eskatutako irizpideak betetzen dituztenek, ondoren zehazten diren matrikula kostuaren portzentajeei dagokien diru-laguntza jasoko dute:

a) Modulu desberdinetan, Ormaiztegin taldean klaseak jasoko dituzten ikasleak:

Lehentasunezko taldea izango da, eta hauek baldintzak betetzen badituzte %75eko edo %100eko diru-laguntza lor dezakete, beti ere aurrekontuetan zehaztutako diru kopurua gainditzen ez bada; horrela bada, baldintzak betetzen dituzten guztien artean banatuko dira aurrekontu osoak finkatzen duen kopuruaren bi heren.

b) Ikastaro trinkoak beren kabuz egingo dituztenek:

Ez dira lehentasunezko taldea izango, eta ondorioz, Ormaiztegin taldean klaseak jasoko dituztenek jasoko duten diru kopuruaren arabera jasoko dute laguntza, ondorengo formulari jarraituz:

AK-TK: EK

(Aurrekontutako kopurua – Taldeei emandako kopurua): Trinkoen eskatzaile kopurua.

7. artikulua. Justifikazioa eta kobrantza.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da 5. artikuluan zehazten direnak betetzea.

Eskatzaileek, urtarrilean jasoko dituzte Udalaren diru-laguntzak.

8. artikulua. Itzulketa.

1. Hainbat kasutan, jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira. Kasuok honakoak dira:

a) Diru-laguntza lortu izana baldintzak bete gabe.

- Tramitación del procedimiento.

El órgano que tramitará el procedimiento será el Consejo de Educación y Euskera. Dicha tramitación constará de los siguientes pasos:

– En el caso de los cursos que se realizarán en el pueblo:

- * Recoger las solicitudes, bajo el criterio y la forma definida en esta Ordenanza.

- * Proponer la relación de solicitantes susceptibles a la concesión de la subvención.

- * Remitir los datos al euskaltegi que llevará a cabo los cursos, para poder formar los grupos.

- * Después de la formación de los grupos, reunir a todas las personas solicitantes para poder acordar el módulo, el calendario y los horarios.

- * Establecer el importe exacto de la subvención y comunicársela a las personas solicitantes.

- * Poner en marcha los procedimientos para el pago de la fianza establecida por la Ordenanza.

– En el caso de las personas que vayan a realizar cursos intensivos fuera del pueblo:

- * Recoger las solicitudes, bajo el criterio y la forma definida en esta Ordenanza.

- * Proponer la relación de solicitantes susceptibles a la concesión de la subvención.

- * Establecer el importe exacto de la subvención y comunicársela a las personas solicitantes.

La decisión sobre la concesión de subvenciones pondrá fin a la vía administrativa.

Las decisiones se publicarán en los tablones de anuncios habituales y/o en la página web del Ayuntamiento.

Artículo 6. Criterios para la adjudicación de subvenciones.

Las personas que cumplan los requisitos exigidos recibirán la ayuda correspondiente a los porcentajes del coste de la matrícula establecidos a continuación:

a) Estudiantes que recibirán clases grupales en Ormaiztegi, en diferentes módulos:

Se trata del grupo prioritario, y, en caso de que cumplan los requisitos, podrán optar al 75% o 100% de la ayuda, siempre y cuando no se supere la cantidad establecida en los presupuestos; si así ocurre, se repartirán dos tercios de lo establecido en el presupuesto total entre todas las personas que cumplan los requisitos.

b) Personas que realizarán cursos intensivos por su cuenta:

No serán el grupo prioritario, por lo que la ayuda que recibirán dependerá de la cantidad concedida a las personas que recibirán clases en Ormaiztegi, de acuerdo con la fórmula siguiente:

CP-CG: NS

(Cantidad presupuestada - Cantidad concedida a los grupos): Número de solicitantes de intensivos.

Artículo 7. Justificación y cobranza.

Para optar a la subvención será necesario cumplir con lo establecido en el artículo 5.

Las personas solicitantes recibirán las ayudas del Ayuntamiento en enero.

Artículo 8. Devolución.

1. En los siguientes casos, la cantidad recibida deberá ser reembolsada:

a) Haber recibido la ayuda sin cumplir con los requisitos.

b) Araudi hau aplikatzean hartutako obligazioak eta, zehazki, 5. artikuluan xedatutakoa ez betetzea, horretarako arrazoiak pertsona onuradunari egozteko modukoak direnean.

c) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntzak ere izatean, soberako finantzaketa gertatzea. Horrelakoetan, Ormaiztegi Udalak emandako kopurua itzuli egin beharko du onuradunak, finantzatutako guztirako kopuruarekiko Udalak jarritako kopuruaren proportzioan.

2. Itzuli beharreko kopurua osoa edo zati bat zenbatekoa den zehazteko, proportzionaltasun eta zuzentasun printzipioak jarraituko dira. Horregatik, kasu bakoitzaren zertzeladak hartuko dira kontuan.

3. Diru-laguntza eman zuen organo berak emango du dirua itzultzea eskatzen duen ebazpena.

4. Itzultze horren espedientea azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearenak, bere VI. Idazpuruan ezarritzen dituen prozedura-arauei egokituko zaie, eta bertan entzuna izateko aukera emango zaio pertsona interesatuari, 15 laneguneko epeaz.

5. Diru-laguntza itzuli beharra egiaztatu ondoren, organo eskudunak ebazpena emango du, betekizun hori jasoz. Ebazpen arrazoitua izango da, eta berariaz adieraziko du zein den itzuli beharra eragiten duen arrazoiak, itzuli behar den kopuruarekin eta diru-sarrera hori egiteko borondatezko epearekin batera. Bide batez, zera emango du aditzera, aurreikusitako epean dirua itzuli ezean, premiamenduzko bidetik joko dela.

9. artikulua. Berme neurriak.

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki irizitako administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, hain zuzen aurkeztutako dokumentazioan azaltzen diren datuak egiazkoak diren eta diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzearen.

Pertsona onuradunak lagundu egin beharko du ikuskapen lan horretan, eskatzen dizkieten datu guztiak emanez.

10. artikulua. Arau-haustea eta Zehapenak.

Arau-hauste eta zehapen erregimena azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Idazpuruan eta bestelako legedi aplikagarrian ezarritakoa izango da.

Xedapen gehigarria.

Udal Ordenantza honetan aurreikusi gabekoetarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta garapeneko zein alorreko bestelako legedi aplikagarria joko da.

Azken xedapena.

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN OSORIK argitaratzen denetik hamabost egunera jarriko da indarrean.

Ormaiztegi, 2016ko urtarrilaren 11.—Jon Enrique Galarza, alkatea. (231)

b) No cumplir con las obligaciones asumidas a la hora de aplicar esta normativa y, específicamente, con lo dispuesto en el artículo 5, cuando las razones puedan ser atribuidas a la persona beneficiaria.

c) Cuando la financiación resulte excesiva, al disponer también de subvenciones de otras instituciones públicas o privadas. En ese caso, la persona beneficiaria deberá proceder al reintegro de la cantidad concedida por el Ayuntamiento de Ormaiztegi, en la proporción de la cantidad concedida por el Ayuntamiento respecto a la cantidad total financiada.

2. Para determinar si la cantidad debe ser reembolsada total o parcialmente, se seguirán los principios de proporcionalidad y justicia, por lo que se tendrán en cuenta los detalles de cada caso.

3. La resolución sobre la devolución del dinero será dictada por el mismo órgano que concedió la subvención.

4. El expediente de dicha devolución se realizará de acuerdo con las normas de procedimiento establecidas en el título VI de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y a la persona interesada se le concederá la opción de audiencia en un plazo de 15 días laborables.

5. Después de haber comprobado la obligación de que la ayuda sea reembolsada, el órgano competente dictará una resolución en la que haga constar dicha obligación. La resolución deberá estar justificada, y deberá explicitarse la razón que genera la obligación de reembolso, así como la cantidad y el plazo voluntario de la devolución. Asimismo, se comunicará que, en caso de que la devolución no se produzca en el plazo establecido, se recurrirá a la vía de apremio.

Artículo 9. Medidas de garantía.

El órgano que concede la subvención podrá realizar todas las inspecciones y los controles administrativos que estime adecuados con el fin de comprobar la veracidad de los datos que constan en la documentación presentada y el cumplimiento de los requisitos establecidos para recibir la subvención.

La persona beneficiaria deberá colaborar en dicha inspección, facilitando todos los datos que le sean solicitados.

Artículo 10. Infracciones y sanciones.

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre y en el resto de la legislación aplicable.

Disposición adicional.

Para los asuntos no previstos en esta Ordenanza Municipal, se recurrirá a lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, de subvenciones, así como a la legislación de desarrollo y de ámbito aplicable.

Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días contados desde su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ormaiztegi, a 11 de enero de 2016.—El alcalde, Jon Enrique Galarza. (231)